

# ESKUBALOIAK ERE BADU ZALETASUNIK

**E**skubaloiak, ezin ahaztu, betidanik izan du bere lekua Ermuko kirolaren barnean. Hor ditugu adibide gisa, Arrate-Amaña taldean partaide izan diren Ainhoa Agirregomezkorta eta Arantza Bouzo, besteak beste, Ermuko eskolatan hasi eta estatu mailan gaur egun dagoen liga indartsuenean jokatzera iritsi diren ermuarrak.

Gaur egun, harrobia asko lantzen ari da, gehien bat eskolen bitartez bultzatzen delako kirol hau. Ermuan federazio mailan jokatzeko ari diren hiru talde ditugu, bi kadete mailan eta bat jubeniletan. Hiru taldeek jokaturiko txapelketan, bigarren faserako txartela lortu dute, une honetan Bizkaiko beste herri batzuen aurka bigarren fasean ari direlarik. Jubenilen mailan, Ermuko taldea aurreneko postuan dago sailkapenean, kadete mailako Ermua A taldea bezalaxe. Talde hauek aurreneko pos-



*Hau Ermuan hain ondo ari diren eskubaloitako taldeetako bat dugu.*

tua lortuko balute, Euskal Ligarako promozioa jokatu lukete, Gipuzkoa eta Arabako beste talde batzuen aurka, eta hortik erabakiko litzateke zein goko litzatekeen Euskal


Liga horretara.

Momentuz, gauzak bide onetik doazela behintzat ezin ukatu.

ASIER IBAIBARRIAGA

SANTOS VEGA

Azkenik gogoratu beharra dago, Ermuko kirola lutoz jantzi dela, hilabete honen 4ean Oier Maiora gaztearen heriotza dela eta. Doakiela hemendik bere gurasoei dolumina.



Probaleku, 7


Tfnoa. 17 46 71

ELEKTRIZITATEA  
**ZUBIAURRE**

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61

48260 ERMUA



**Z  
U  
T  
i**

**GARAGARDOTEGIA**

OTARTEKO eta  
INPORTAZIOZKO  
GARAGARDOTan  
berezitasuna